

Arantzazu, Afrikarekiko **elkargune**

# Afrikandugu proposamena

Afrika eta Europaren arteko *lankidetzarako*  
*senidetzearen* eredia partekatu eta sustatu

**Zirriborroa**



Arantzazu, 2009ko ekaina

**baketik**  
Arantzazu  
Bako zentroa.  
Gatasten lantze eskua



## Oharra

Txosten hau Afrikako III. Astearen aurretiko lanetan eta Astearen barruan eztabaida-zirriborro gisa erabili den txostena da. Jardunaldi hauetako ondorioek bere edukia osatzen dute. Halaber, izena ere aldatu zaio. Etorkizunean ez da Afrikandugu proposamena izango, **Ndugu** proposamena baizik. Beraz, proposamenaren bertsio honen irakurketa Afrikako III. Astearen (II. eranskina) ondorioekin osatzea komeni da. **Ndugu** proposamenaren behin betiko txostena, laugarren Astean osatuko da, ekarpen eta iradokizun gehiago jaso ondoren.

## Sarrera

Baketik 2006ko urrian sortu zen, eta hasieratik begirada «ahaztutako gatazketan eta gatazketan ahaztutakoengan» ezartzea aldarrikatu zuen; Afrikan, zehatzago. Asmo horrekin bat egin zuen Tau Fundazioak, eta Baketik-ekin elkarlanean hasi. Horrela, 2007ko ekainaren 4a eta 10a bitartean oso emaitza positiboak izan zituen Afrikari buruzko I. Astea izan zen Arantzazun. Lehen esperientzia hura oinarritzat harturik Baketik-ek eta Tau Fundazioak bigarren ekitaldia antolatu zuten, 2008ko ekainaren 9a eta 15a bitartean.

Afrikari buruzko I. Asteak hiru oinarri izan zituen: Afrikako errealitateekiko dugun ezjakintasuna; ezjakintasun hori eta horren inguruko aurreiritziak gainditzeko Afrika ezagutzeko borondatea; eta kontinente horretan egiten ari diren ahalegin eraikitzaileekin eta humanistekin elkarlan-eremuen zabaltzea. Oinarri horiekin, lehen etapa horrek Afrikako historiaren, errealitatearen eta gatazken gaineko oinarritzko ezaguera eta hurbilpena egitea ahalbidetu zigun.

Bigarren ekitaldian aurrera pauso bat eman nahi izan genuen. Geure gizartetik bertatik susta genitzakeen ekimen-proposamen zehatzen inguruan hausnartzea planteatu genion geure buruari. Honako galderan oinarritu ginen: «Ezagutzeaz, salatzeaz eta laguntzeaz gain, Europako gizarte zibil modura egiten ari ez garen zer gehiago egin dezakegu Afrikan giza duintasunaren alde egiteko?».

Afrikari buruzko II. Astearen ondorioek galdera horri erantzun bat ematen lagundu ziguten: «Maila guztietara egin dezakeguna Afrikarekin lankidetzarako senidetze kontzeptua sustatzea da». Ondorio horretatik aurrera, geure helburua ideia hori garatzea izan da.

Dokumentu honek lankidetzarako senidetze kontzeptuari proiektu forma eman nahi dio, Afrikandugu proposamena izenburupean. 2009ko ekainaren 8a eta 13a bitartean leku izango duen Afrikari buruzko III. Astearen baitan aurkeztuko dugu. Afrikaren inguruan eginiko hausnarketaren hiru urteko garapenaren eta etengabeko galderen emaitza da: nahikoa eta egokia al da kontinente horren alde egiten duguna, zerbait gehiago egin dezakegu, edo zerbait ezberdina?

Edozein ekimenetan kaltegarria izan daiteke inertzia, baita elkartasunaren eta kooperazioaren eremuan ere. Espiritu berritzaile batek egiten dugun hori etengabe auzitan jartzea eta birplanteatzea eskatzen du, geure burua akomodatzea ekiditeko eta behin eta berriz errepikatzearen poderioz mugiezin bezala hartzen ditugun errutinetan ez gelditzeko. Are eta gehiago geure lanaren emaitzak bilatutakoe-tara hurbiltzen ez bagaitu; kasu honetan, Afrikan giza duintasuna eta justizia.

Hau da Arantzazun egiten saiatu garen ariketa: geure buruari galdetu, geure burua auzitan jarri, eta Afrikarekiko egoera dela eta Europako gizarte zibil antolatu modura zer egiten dugun edo zer ez dugun egiten nabarmendu, ondorio praktikoak eratortzen saiatzeko. Dokumentu hau lehen ariketa horren aurreneko emaitza da. Edozein kasutan ere ez da errezeta perfektua. Afrikarekiko gizarte-elkartasunari lagundu nahi dion iradokizuna baino ez da.

Beraz, **Afrikandugu** proposamenaren edukiak ez du behin betiko izaerarik. Hausnartzen eta ekiten jarraitzeko proposamena baino ez da. Izaera dinamikoa du, iradokizunetara irekia dagoena, aldaketetara eta gehiketetara irekia. Perfektua ez den materiala da, edo nahi bada, bere alderdi guztietan hobetu daitekeena. Bere benetako egitasmoa hobetzea eta aurrera egitea da. Agian, gerora, bere funtzio bakarra hausnarketa sustatzearena izango da, geure buruak auzitan jartzearena, eta hau baino proposamen zehatzagoak sortu ditzagun geu intelektualki bultzatzearena. Hala balitz ez legoke gaizki; nork daki...

Dokumentua bi zatitan egituratua dago: lehenak proposamenaren testuinguru teorikoa jasotzen du, Afrikarekiko elkartasunaren diagnostiko batekin, proiektuaren helburuen definizioarekin eta elkarlanaren eremua hobetzeko eta zabaltzeko irizpide andanarekin. Bigarren atalak **Afrikandugu** proposamena deskribatzen du bost puntutan: aurretiko gogoetak, proposamenaren formulazioa, oinarriak, proposamena deskribatzatzen duten bi ikuspegi, eta praktikan ekimen honek sorrarazten dituen galdera nagusiak. Azkenik, honako izenburua duen eranskina gehitu da: «Elkartasuna, nondik? (gehienbat europarrentzat)», elkartasunaren oinarri pertsonalari buruzko gogoeta.

# Afrikandugu proposamenaren testuinguru teorikoa

## 1. Aurretiko diagnosis

Afrikarekiko Europar elkartasunaren azterketa lau azpiataletan oinarrituko dugu. Lehenik, diagnosi honi berezkoa zaion esparrua finkatuko dugu; bigarrenik, elkartasun honen ardatz historikoak berrikusiko ditugu; hirugarrenik, horren guztiaren balorazioa egingo dugu; eta bukatzeko bi ondorio aurkeztuko ditugu.

### 1.1. Diagnosi honen esparrua

Gizakiak erosotasuna bilatzeko joera nabaria du. Afrikak gogaitarazten gaitu. Erosotasuna bilatzeko lehen modu bat gogaitzen gaituen errealitatearen aurrean ez ikusiarena egitea da. Ez badugu begiratzen, ez badugu ikusten edo ez badugu ikusi nahi ez dugu, jada, gogaikarri egiten zaigun arazorik. Hori oso ohikoa da geure gizartean, eta ez bakarrik Afrikan gertatzen diren bidegabekeriekin, baita inguratzen gaituzten ia beste guztiekin ere.

Zorionez, arazo honek ez du gizartea bere osotasunean harrapatzen, badago «itsukeria» horren aurrean garrasi egiten duen sektorerik eta hiritar konprometitu izan nahi duenik ere. Halako bidegabekeriei aurre egiten saiatzen dira, ahal duten neurrian, eta zehazki Afrikarekiko elkartasunaren eta elkarlanaren konpromisoari eusten.

Begiratzen duen eta ez duen gizartearen lehen sailkapen honi erreparatuz zera zehaztu nahi da: aurre-diagnosi hau ikusi nahi duen gizartearen zatiaren baitakoa da, eta ez du ikusi nahi ez duten edo ikusten ez duten horien fenomenoaren berri ematen. Izan ere, agian, ikusten ez duten horiek ikus dezaten lortzeko modurik onena ikusten duten horiek gauzak are eta modu eragingarrienean egitea izan daiteke.

Ondorioz, diagnosi hau Europako gizarte zibil antolatutik abiatzen den Afrikarekiko jabetze eta konpromiso esplizitua partekatzen dugunok egiten dugunaren azterketara mugatzen da. Beraz, ez itugu gobernuen ekimenak aztertzen, ezpada jatorria ekintza sozialean duten horiek.

### 1.2. Azken 40 urtetan eman diren Afrikarekiko konpromiso-ekimenen ardatz historikoak

Aurreko guztiak ez du esan nahi, nolnahi ere, erosotasunerako joera ez dela dena ikusten dugunon artean gertatzen. Kasu honetan ez gara ezinbestean materiala den erosotasunari buruz ari, erosotasun intelektual edo analitikoari buruz baino. Akomodatze honen jatorria hainbat faktoretan oinarritzen da: gaiak berak duen konplexutasuna, baliabideen eskasia eta lanaren dimentsio ikaragarria, urteetan egiten ari denaren inertziaren pisua edota egiten dugun horrek ondo sentiarazteak.

Beraz, Afrikarekiko dugun konpromisoan akomodaziorako joerak eraginik baduen aztertu behar dugu. Horretarako, lehena ildo honetan egin duguna eta egiten duguna behatzea da. Azken 40 urteetan Afrikarekiko Europako gizarte zibilen elkartasunezko ekintzen balantze historikoa hiru ataletan bana daiteke: enpatia, salaketa eta ekintza.

#### •Enpatia

Agian ekintza-ardatz pasiboaren itxura eman dezake; baina Afrikarekiko enpatia kontinente horretan gertatzen ari dena begiratu ahal izateko eta ikusi ahal izateko ezinbesteko alde aurreko baldintza da, eta ondorioz, baita ekin ahal izateko alde aurreko baldintza ere. Enpatia hau da: han gertatzen dena ezagutzeko borondatea, hango berri izatea edo eta harreman zuzenak bilatzea. Afrikatik datozen berri onekin eta txarrekin gozatzea eta sufritzea ere bada. Enpatiak bestearekiko adi egotea dakar, besterik gabe. Distantzia luzeko enpatiarekin bakarrik ezin dugu gauza handirik lortu, jarrera beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Baina hala ere, gure gizarteko pertsona askok eta askok ez dute Afrikarekiko beste konpromiso-baliabiderik aurkitzen. Zenbait kasutan, enpatia emergentziatzko egoera batean gauzatzen den elkartasun-kuota batekin edota GKEren baten proiekturen bat babestearekin konbinatzen da. Ekimen-ardatz honetan ez da aldaketa handirik izan azken hamarkadetan. Afrikak jasaten dituen bidegabekeriei aurre egiteko enpatia izan ohi da hiritar askok duten azken baliabidea.

#### •Salaketa

Badaude euren enpatia Afrikako kontinenteak jasaten duen berezko edo unean uneko bidegabekeriaren salaketan eta kritikan gauzatzeko bideak aurkitzen dituzten lagunak eta gizarte mugimenduak: Eliza, GKEak, elkartasunerako elkarteak edo elkarte internazionalistak... horiek guztiak egoera hori ikusgai eta entzungai egon dadin laguntzen dute. Firma-bilketak erabiltzen dituzte, manifestazioak egiten, kontzientziazio-kanpainak, hedabide alternatiboak... Horiek guztiak egoera hori bultzatzen eta bermatzen duten sistema eta berau indartzen duten erabaki makropolitikoei edo estatu-erabakiei erantzuna ematea dute helburu. Dena dela, salaketa mota hori apenas agertzen da hedabideen agendetan edota agenda politikoan edo nazioartekoan. Salaketa horrek ez du lortzen Afrikak jasaten duen giza eta gizarte-dramaren neurriko lehentasun izan dadin. Azken hamarkadetan ez da garapenik antzeman. Lehen egiten genituen antzekoak diren gauzak egiten jarraitzen dugu. Horrenbestez, emaitzak parekoak dira. Alde positiboari dagokionez, erakunde ezberdinen garapenerako lankidetzaren politikak errotzea lortu da, eta baita gizarte zibilaren ekintza humanitarioaren edo asistentzialaren ekimen-ardatzak salaketa estrukturalaren behararen kontzientzia handiagoa izan dezan lortzea ere.

## •Ekintza

GKE bati edo Elizaren kanpaina bati diru kopururen bat ematen dion hiritar baten ekimene- tik hasita puntuala edo jarraia den lankidetzaproiektura doan ekimen-esparru guztia jaso dugu atal honetan. Afrikako edozein bazterretako errealtate konkretuan eragina duten ekintza zuze- nei buruz edota edozein gizarte edo eliza erakunde bitartekari den ekintzei buruz dihardugu. Ildo honetan, Europatik gizarte-erakundeek eta Elizak egiten dituzten ekimenak milaka dira, asko dira sortzen diren onura puntualak eta pertsonalak. Baina oro har, Afrikako errealtatearen osotasunean ekintza horiek duten eragina oso txikia da. Ekimen-ardatz horrek azken urte hauetan izan duen garapenak lau elementu azpimarragarri ditu.

-Elkartasun-ekintzek, laguntza humanitarioak eta asistentzialak edo garapenerako lankidetzaproiektuek gero eta gehiago salatzen dituzte bidegabekeria estrukturalak. Esan daiteke salaketa eta ekintzak gero eta elkar lotuagoak daudela.

-Azken urte hauetan Afrikako burujabetza edo menpekotasuna norabidetzat hartzen duten elkartasun-proiektuen arteko tentsio kritikoa gorpuztu da. Zenbait elkartasun-, lankidetzaproiektu edo asistentzia-moduek kalterako ondorioak izan ditzakete, egoera alda dezakeen Afrikako burujabetza, barne antolaketa eta potentzialitateak neutraliza ditzaketen edo arazoak zergatiak estali edo errotu ditzaketen neurrian. Afrikako ahots ezberdinak arrisku horiek salatzeko altxatzen ari dira.

-Kasu askotan, ez gehienetan, lankidetzaproiektuak diruz laguntzen dituzten gobernuen erabakien menpeko dira. Horrek, noski, bere alde positiboa eta negatiboa du. Beharrezkoak diren proiektuak garatzeko dirua lortzen dute, baina Afrika askatzeko aukerarekin bat ez dagoen gobernu-politikek eta ikuspegiek askotan, nahi baino gehiagotan, sortzen den dependentziarako harreman horren emaitzak baldintzatzen dituzte. Horrek, lekuan lekuko beharrei erantzuten dieten proiektuak baino, diru errazagoa erakar dezaketen estrategiak lantzerantz bultzatzen ditu erakundeak, borondatezkoa ez den modu batean bada ere. Edozein kasutan, badaude gobernuen finantziarioa enpresa, edo hiritarren elkartasun zuzena sorburu duten beste diru-iturri batzuekin uztartzen dituztenak ere. Baita elkartasuna lekuan lekuko bizitza-aukera bihurtzen duten pertsonak edo erakundeak ere, erlijioso asko bezala. Horiek ez dituzte gobernu-zaindaritzak baldintzatzen.

-Azken hamarkadetan Europako gizarte zibilaren erakunde kopurua hazi egin da. Euren indarrak norabide honetan bideratzen dituzten erakunde erlijioso, hiritarren erakunde edo GKE gehiago dago. Hori, ez bairik gabe, oso positiboa da. Dena dela, oso urriak dira, eta askotan oso puntualak elkartasun horren ondorio sozial eta politiko eraldatzaileak hobetzeko eta zabaltzeko egiten diren indarrak eta ahaleginak batzen diren uneak. Gizarteari konpromiso ezberdinen aukeren eskaintza anitza baina nahasia heltzen zaio. Horrek hiritarrak galarratzen ditu, eta baita asperrazten ere.

### 1.3. Lehen balorazio bat

Lehen balorazio hau eta dokumentuarena bere osotasunean azpimagarriak diren bi premisatant oinarritzen da. Lehenik, Europako gizarte zibiletik egiten diren elkartasun-, salaketa- edo lankidetzaproiektuak errespetu, onspen, laguntza eta mirespen osoa merezi dute, nahiz eta kontrakorrante egiten den lana izan eta mota guztietako oztopoak gainditu behar, lekuetara itxaropena, proiektuak eta laguntza eramatea lortzen duen borroka adierazten baitu. Gogoeta hau hasieran eta beste edozein balorazioaren aurretik dago. Bigarrenik, lehen oinarri sendoa eta positiboa horrek egiten duguna hobetzearekin bateragarria izan behar du, eta egiten duguna hobetzeko ondo egiten duguna jakiteaz gain, zer hobe genezakeen ere identifikatu behar dugu. Horrek geure ekintzen hainbat alderdi zalantzan jartzea eta autokritika egitea eskatzen du. Beharrezkoak eta ekidin ezinak dira; baina ez dute inondik inora aurreko lehen gogoeta ezeztatzen.

Aurrekoa adierazi eta gero, honako puntuetan laburbil genitzake Afrikarekiko Europako gizarte zibilen ekimen-ardatzak:

•Gizartearen osotasunari begiraturik, Afrikarekiko konpromisoan inplikatuak dauden pertsonen eta gizarte-taldeak gutxi dira. Pertsona eta erakunde asko, ziurrenik, gehiago egiteko prest leudeke, baina enpatia, atxikimendu moral edo eskaintza gisa zatitua eta sakabanatua aurkezten diren elkartasun-kuota ekonomikoa baino ez dute aurkitzen.

·Enpatiak bakarrik, salaketa estrukturalak bakarrik, elkartasun asistentzialak bakarrik -nahiz eta ekarri garrantzitsuak egin- ez dute zuzendu nahi diren egoera horiek berriro errepikatu daitezen ekiditeko emaitzarik lortzen. Edozein kasutan, azken hamarkadetan, pixkanaka, asistentziala-goia den enpatia eta elkartasun-kontzientzia batetik enpatia, elkartasuna eta salaketa estrukturala elkar uztartzen dituen eredu baterantz goaz.

·Hala eta guztiz ere, iraganean gertatu den bezala, Afrikan ekiteko zenbait moduk ondorio kaltegarriak izan ditzakete, hainbat arrazoiengatik:

-arazoaren sintomei soilik aurre eginez, beren zergati estrukturalak estaltzen eta iraurazten dituztelako, edo, alderantziz, indarra arrazoi estrukturalen salaketan bakarrik jarriz, lehentasun larria duten beharrei erantzutea ahazten dituztelako;

-Afrikan dauden potentzialitateekiko arrotzak diren ereduak inportatzen eta ezartzen direlako, edo Afrikaren giza kapitala ez delako kontuan hartzen, edo Afrikari burujabetza eragozten dioten orekarik gabeko menpekotasun- eta botere-harremanak sortzen dituztelako;

-edo besterik gabe, kontzienteki edo inkontzienteki, Lehen Munduaren mentalitate aprioristiko batean oinarritzen direlako, edo beharra duenaren aurrean emailearen autokonplazentzia eta lasaitasunera bideratzen direlako.

·Azken finean, Afrikarekiko gizarte-elkartasun modu ezberdinek, lekuan leku, bizitza-baldintza duinagoa egiten laguntzen duten egoera puntualak arintzea lortzen dute. Lortzen dute salaketa batzuk entzunaraztea, hango egoeraren kontzientzia handitzea edota gobernua erantzunak ematea eta lankidetzak diruz hornitzea.

·Ez da gutxi Europako gizarte zibilek Afrikarekiko elkartasunean lortzen dutena, baina positiboa dena aintzakotzat hartzeaz gain, gabeziak ere kontuan hartu behar dira. Nagusiena: ez dute lortzen konpondu nahi diren egoerak gertatu, errepikatu edo zabaldu daitezen ekiditea. Ez dute lortzen eraldaketa-prozesua eta aldaketak posible egin ditzaketen baldintza sozialak eta politikoak, lokalak eta nazioartekoak sortzea.

#### 1.4. Diagnosi honetatik bi ondorio

Esandako guztiaren ondoren, Afrikarekiko Europako gizarte zibil antolatuen ekimenari buruzko diagnosa bi ondoriotan laburbil daiteke:

·**Lehena. Asko egiten dugu, baina gutxi lortzen dugu**

Europako gizarte zibilak Afrikarekiko elkartasun-ekimen eta -proiektu kopuru handia eta positiboa garatzen du; baina lortzen dena sakabanatua dago, ez da nahikoa eta hobetu daiteke.

·**Bigarrena. Geure elkartasun-proiektua hobetzen eta sozialki zabaltzen saiatu behar gara, baldintza berriak sortu ahal izateko**

Diagnosi honen atzean dagoen hipotesia honakoa da: oinarritzkoena geure elkartasun proiektua berrikustea, hobetzea, partekatzea eta sozialki zabaltzea da. Zertarako? Bai goitik, estatuen eta nazioarteko botere-egituretan, bai behetik, Afrikako eta Europako gizarte oinarrian, Afrikako egoeraren eraldaketa- eta aldaketa-prozesua helburu duten baldintza sozialak eta politikoak sortzeko. Baldintza berri horiek hangoak nahiz hemengoak izan beharko dira, esku-hartze aktiboak eta zuzenekoak izan beharko dute, eta enpatia, elkarkidetzak eta salaketa uztartu beharko dituzte.

## 2. Afrikandugu proposamenaren sustatzaileen helburuak

Aurreko diagnostikoaren oinarrian, lau hitzetan laburbil daiteke Afrikandugu proposamenaren sustatzaileen proposamena: baldintza berriak sortzeko berritu. Berritzeak zera esan nahi du: zerbait hobetzeko berrikuntza eragitea. Hau da helburua: egiten eta lortzen duguna hobe dezake-

ten modu berriak lortzen lagun diezagukeen berrikuntzaren bat eragitea Afrikarekiko elkartasun prozesuetan. Modu luzeago batean esanda, helburu orokor baten eta bi helburu zehatzen bidez adieraz daiteke.

## 2.1. Helburu orokorra

Arantzazutik eta euskal gizartetik Afrikarekiko elkartasunerako, salaketarako eta lankidetzarako konpromiso sozialak hobetzeko, partekatze eta zabaltzeko ekarpenak egin, egoeraren eraldaketa ekar dezaketen baldintza sozial eta politiko berriak sortzeko.

## 2.2. Helburu zehatzak

### •Ikuspuntu teoriko batetik

Afrika dela-eta Europako gizarte zibil antolatuen ekintzari buruz elkartasun-, salaketa- eta lankidetzakonpromisoak hobetzen, partekatzen eta zabaltzen lagun dezakeen hausnarketa kritikoa eta autokritikoa sustatu.

### •Ikuspuntu praktiko batetik

Afrikarekiko dauden konpromisoekiko osagarria izan daitekeen esperientzia pilotu bat garatu, lankidetzarako senidetzea kontzeptua elkarrekin eta maila guztietan sustatuz, errealitate hura eraldatu dezaketen baldintza sozialak eta politikoak sortzen saiatzeko.

Helburu hauen aplikazio-eremua euskal esparruan ezarri da, nahiz eta gero, pixkanaka, estatuko beste gunetara edota Europakoetara zabaltzeko nahia izan.

# 3. Afrikarekiko elkartasuna hobetzeko, partekatze eta zabaltzeko irizpideak eta galderak

Lankidetzarako senidetzeen kontzeptuaren eta figuraren sustapen partekatuaren bidez Afrikandugu proposamenak Afrikarekiko elkartasunari lagundu nahi dio. Ekimen hau bultzatzen dugunon aburuz, berritze modu hau babestu nahi duen edozein proiektuk eta honek berak gutxienez aurreko diagnostik eta azken hiru urte hauetan Arantzazun burututako hausnarketatik eratortzen diren zazpi irizpide bete behar ditu. Irizpide horiek puntu honen bigarren atalean landuko dugun Afrikarekiko elkartasuna hobetzen, partekatzen eta sozialki zabaltzen lagunduko digun oinarritzko galdeketa zehazten lagunduko digute.

## 3.1. Afrikarekiko elkartasuna hobetzeko, partekatze eta zabaltzeko zazpi irizpide

### •Afrikako ahalmenak sustatu

Afrikako ahalmen tradizionalak, subiranotasuna eta bere buruaren eraikuntza sustatzeko ideiak bideratu beharko du egitekoa. Afrikako autonomia bermatu gabe, bere alde egiten den guztia, horrek jasaten dituen bidegabekeriaren zergatiak eta botere-harremanen desorekak iraurazten lagunduko du.

### •Lehentasuna Afrikako giza kapitala indartzean jarri

Afrikako lehen ahalmena bere giza kapitala eta jakintza tradizionala dira, bakarra eta geurekiko desberdina. Giza kapital hori indartzeak eta sustatzeak Afrikarekiko elkartasuna hobetu nahi duen edozein nahiren lehentasuna izan behar du. Horrek honakoa esan nahi du: beren ahalmenak geurekin ez ordezkatzeko ezta horiek gutxieste ere; geureak beste errealitate historikoetan, soziologikoetan eta kulturaletan sortu dira.

### •Lankidetzaren simetria eta elkarrekotasunean oinarritzea

Elkartasuneko, salaketako, lankidetzako edo asistentziatzeko edozein proiektuk, han eta hemen, elkarrekotasuna eta lankidetzaren bilatu behar ditu, eman eta jaso, irakatsi eta ikasteko asmoz. Lehen munduak Afrikarekiko duen edozein eskema asimetrikori, inposatzaileari edo nagusitasunean oinarritutakoari uko egin behar dio.

**•Afrikarekin elkarrizketa zuzena bilatu**

Aurrekoa posible izan dadin, beharrezkoa da Afrikan egiten den elkartasun-ekintza bakoitzak Afrikan bertan solaskide afrikarra izatea. Ezin dugu solaskidea hartzaile pasibo soil modura hartu, lankidetzarako eta elkarrekotasunerako subjektu parte-hartzailea gisa baizik. Horrela, egin beharrezkoa elkarrekin eramango dugu aurrera, berdinen arteko harremanean oinarritua.

**•Ekin aurretik, geure Afrikako solaskideei entzun**

Entzutea da aurreko irizpideak modu minimo batean betetzeko ezinbesteko baldintza. Afrikarekiko elkartasun-konpromisoak hobetzeko entzutea beharrezko irizpidea da. Sakon entzutea, ekin aurretik, nagusitasuneko aurreiritzirik gabe edo autokonplazentziaren sindromerik gabe ezagutzeko, ulertzeko eta elkarrekin lan egiteko.

**•Afrikaren arazo globalaren eta bere lehentasunen jabetun izanik ekitea**

Hemen ere honakoak balio du: «globalki pentsatu, tokian tokiko mailan ekin». Elkartasuneko edozein ekimen Afrikako egoeraren zergati historiko-estruturalen eta kontinente horretan giza duintasunaren kausari dagozkion bost lehentasun handien kontzientzia globalean oinarritu behar da (1 hezkuntza, 2 osasuna, 3 elikadura eta nekazaritza, 4 estatu- eta garapen-ereduak eta 5 eredu ekonomikoak).

**•Bide partekatu bat eskaini ahalik eta sektore gehienen inplikazioa lortzeko**

Afrikarekiko elkartasunaren sustatzaileok ezin gara gizarte-sektore murrizta osatzearekin konformatu, ez eta geure proiektuarentzat bazkideak edo diru-emaileak aurkitzearekin. Geure konpromisoak hobetzeko, partekatze eta zabalteko eta eraldaketarako baldintza sozial eta politiko berriak sortzeko ezinbesteko irizpidea elkarlanerako bide partekatuak eskaintzea da, han eta hemen, egitasmo horren alde lan egingo duten pertsona kopuru handien atxikimendu aktiboa lortzeko. Erakunde bakoitzak ditugu geure proiektu propioak. Horiekin jarraitu behar dugu, baina ona litzateke gutxienez proiektu iraunkorra eta jarraia denon artean partekatzea, gizarteari adierabakarreko mezua bidali ahal izateko.

**3.2. Afrikarekiko elkartasuna hobetzeko eta zabalteko oinarritzko galdeketa**

Aurreko irizpideak egokiak direla uste badugu, Afrikandugu proposamenak eta Afrikako egoera alda dezaketen baldintza sozial eta politiko berriak sortzeko hobetu, partekatu eta zabaldu nahi duen Afrikarekiko elkartasuneko edozein proiektuk honakoaren antzekoa izan daitekeen auto-ebaluazioko galdeketa bati erantzun beharko lioke:

•Geure elkartasunak Afrikaren indar tradizionalak, bere subiranotasuna eta barne eraikuntza sustatzen al ditu, edo haatik, hartzaileak menpekoagoak eta gero eta autonomia gutxiagoko bilakatzen al ditu?

•Geure elkartasun-ekimenak Afrikako giza kapitala indartzen du edo, alderantziz, bere ahalmenak geureekin ordezkutzen ditu edo geureen menpe jartzen?

•Geure elkartasun-ekimena elkarlan eta elkarrekotasun simetrikoan oinarritzen da, edo mentalitate asimetrikoan eta inposatzailean edota nagusitasun-eskeman?

•Geure elkartasun ekintzak Afrikan ba al du lankidetzaren subjektu aktibotzat jotzen den solaskide zuzenik edo hartzaile pasibo soiltzat jotzen dugu?

•Geure elkartasun-ekintza solaskide afrikarren iritziaren entzute sakonaren ondorioa da, edota euren iritzia ziurtzat jotako zerbait da?

•Geure elkartasun-ekintza Afrikako egoeraren zergatien eta lehentasunen jabetze global batean oinarritzen da edo horiek denak arrotzak zaio?

•Geure elkartasun proiektu globalak ba al du, han eta hemen, gizartearen inplikazio handiagoa lortzeko, beste entitateekin partekatzen duen elkarlanerako bide zehatzik eta komunik edo bere kabuz lortu duen horrekin konformatzen da?

# Afrikandugu proposamenaren deskribapena

## 1. Aurretiko gogoetak

Honakoa azpimarratu behar da lehenik: Afrikandugu proposamenak ez du Europako gizarte zibil antolatutik Afrikarekiko elkartasunaren alde egiten dena ordezkatu nahi ez eta horren alternatiba izan nahi ere. Horrela balitz, handikerian, arduragabekeria eta mespretxuan eroriko litzateke. Osagarri izan nahi du. Lankidetzaren eremuan egiten den ahalegin handiari eta positiboari gehitu nahi zaion ekarpen bat baino ez da. Entsegu- eta saiakera-izaera duten ikuspuntu teoriko eta praktikoko berriak eskaini nahi ditu, besterik gabe.

Proposamenaren izenak ere merezi du aurretiko oharrik. Afrikandugu tipografikoki bost hizki azpimarratzen dituen bi hitzen arteko lotura da. Ndugu-k anai-arreba esan nahi du swahiliz, Afrikan gehien hitz-egiten den hizkuntzetako bat. Beraz, Afrikandugu-k Afrika anaia eta Afrika arreba/ahizpa esan nahi du. Dena dela, hitz joko hau esanahi askokoa da, euskaraz «Afrikan dugula» esan nahi baitu. Laburtzeko, ideia honakoa da: «Afrikan badugu anaiarik/arrebarek/ahizparik». Afrikako kontinentea gure anaia/arreba/ahizpa dela pentsa dezakegu, afrikar bakoitza gure anai/arreba/ahizpa dela pentsa dezakegu, gure odol bereko anaiarik/arrebarek/ahizparik han ere badugula pentsa dezakegu ere.

Proiektu honen helburuetarako esanahi guztiak dira baliagarriak. Proiektuak aurrera egin ahal izateko ezinbesteko baldintza bi oztopo zubi banarekin ordezkatzeko da: aldentzen gaituen ezikusiarena egitea hurbiltzen gaituen hurkoaren kontzientziaren zubiagatik ordezteko; eta Afrika estaltzen, kondentzen eta isolatzen duten etiketak eta aurreiritziak hurbil sentiarazten laguntzen diguten enpatiatik, entzuteagatik eta apaltasunagatik ordezkatzeko.

Zubiek oztopoak ordeztu ditzaten lanabesik nagusia geure begiradan dugu. Ekin ahal izateko, egiten duguna hobetzeko eta emaitzen gabeziaren aurrean erreakzionatu ahal izateko, ndugu lez begiratu behar diogu elkar. Anai/arreba/ahizpa modura sentitu eta ikusi geure burua, antzeko lez, hurko lez... familia bereko partaide modura. Horregatik proposamen honek Afrikandugu du izena, eta horregatik bere helburu praktikoko nagusia maila guztietan lankidetzarako senidetzearen irudia sustatzea da.

Horrela da, lankidetzarako senidetze kontzeptua proiektu honen muinean dago. Dokumentu honen hasieran azaldutako zazpi irizpideei modu positiboan erantzuten saiatzen da. Zera bilatzen dugu: giza duintasun berak senidetze gure arteko harremanak berdin gisa gauzatzen lagunduko digun Europako eta Afrikako gizarte zibilen arteko lankidetzarako hartu-emana indartzea, hobetzea eta zabaltzea. Maitasunaren definiziorik ederrenetakoari erantzuten dion kontzeptua da: «sustatzeko borondatea». Lankidetzarako senidetze kontzeptuak subjektu garen neurrian – berez helburu, hautatzeko ahalmenarekin- elkarrekin eta elkarrekotasunarekin geure buruak aurrera ateratzeko borondatea barneratzen du, giza duintasunaren elkartasunak lorturik.

## 2. Afrikandugu proposamenaren formulazioa

Honetan datza Afrikandugu proposamena: ahalik eta Afrikarekiko elkartasun-erakunde kopuru gehienaren artean Afrikako eta Europako entitateen eta pertsonen arteko lankidetzarako senidetze-harreman zuzenez osatutako ahalik eta sarerik handiena eta zabalena sustatzea.

Praktikan honek entitatea batek —elkartea, eskola, komunikabidea, enpresa, sindikatua, nekazaritza-kooperatiba, osasun-taldea, udaletxea... izan edota hemengo edo hango banakoa edo familia— elkartasunerako erakundeen laguntzarekin beste kontinentean parekorik bilatzen duela esan nahi du, elkarri laguntzeko lankidetzarako senidetze- eta komunikazio-harreman zuzena ezarriz.

Proposamen honek bere helburuen nahi estrategikoei erantzungo dio, baldin eta masiboa bada horrelako proiektu batekiko elkartasun-erakundeen atxikimendua. Erakunde bakar batek edo bakar batzuek hamarka edo ehundaka senidetze dinamizatu ditzakete. Hori horrela ez legoke gaizki. Baina modu globalean elkartasun-proiektuak hobetzen, partekatzen eta zabaltzen eta eraldaketarako baldintza sozial eta politiko berrien sorrera berma dezakeena lankidetzarako senidetze nozio hau ehundaka eta milaka erakundek modu partekatuan sustatzea da.

Proposamen honen zentzua ulertu ahal izateko, imajinatu, adibidez, Europako udaletxe guztiek, edo horietako gehienek, Afrikarekiko elkartasun-erakundeen inizatiba bateratua dela medio, Afrikako entitate municipal pareko batekin lankidetzarako senidetzea ezartzeko proposamena onartzea. Hori ez litzateke senidetze folkloriko edo paternalista, eta hasieran elkartasun-erakundeak egongo lirake koordinazio lanak egiten.

Beraz, proiektu honek Afrikarekiko Europako elkartasun-erakundeen inplikazio partekatua, masiboa eta koordinatua behar du ezinbesteko baldintza lez. Bestela, beste ekimenen artean galduko litzateke, emaitza esanguratsuekin, baina, aldi berean, puntualekin. Erakunde hauetako bakoitzak bere proiektuaren parte bezala lankidetzarako senidetze zuzenak erraztea eta koordinatzea onartuko luke.

Europa barruko ituna eta elkarlana beren testuinguruko bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten duten Afrikako gizarte zibileko erakundeetara zabaldu beharko lirake era berean eta batera. Batak eta besteak lankidetzarako senidetzeen agente sustatzaile modura egingo lukete lan, euren sareak, kontaktuak, esperientzia, lekuan lekuko duten ezagutza aprobetxatuz. Hango eta hemengo entitateak eta pertsonak harreman zuzenean jartzen laguntzen duten teknologia berriak ere aprobetxatuz.

Modu honetara, proposamen honen berrikuntza nagusia honetan datza: Afrikarekiko elkartasun-erakundeak edo Afrikako gizarte zibileko erakundeak beren eraikuntza-, lankidetzeta-, edo salaketa-proiektuekin jarraitzeaz gain, eraldaketa globaleko proiektu komuna partekatuko luketeela. Horrela, erakunde horien proiektu puntualak eta tokian tokikoak estrategia bateratzaile eta eraldatzaile batekin osatuko lirateke.

Behin senidetuta, senidetutakoek familia berriko eta bereko partaidetzat joko dituzte beren buroak, euren artean harreman egonkorra eta erregularra mantenduz. Ezkontza izan daitekeen modura, senidetzea horrela ulertua familia-harreman berria egituratzen duen konpromiso eta itun aske modua litzateke.

Familia-harreman berri horrek honako ildoei jarraitu behako lieke: adiskidetasuna, afektua, elkartasuna, maitasuna, bide-laguntza, egonaldia, eta balio espiritualak, materialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak, elkarbizitzazkoak, teknikoak, teknologikoak, industrialak edota senidetutako bakoitzak (ndugu bakoitzak) izan dezakeen eta bestearentzat baliagarria izan daitekeen edozein ondasun partekatzea.

Lankidetzarako senidetzearen ezinbesteko baldintza bi norabidekoa eta hartu-emanekoa izatea da. Afrikako aldeari Europakoak bakarrik eskaini diezaiokeela zerbait pentsatzen duena oker dabil. Ez dago lankidetzarako senidetzetik Afrikakoak eskaini dakizkiokeen balioak ulertzen eta identifikatzen ez badaki Europako aldeak.

### 3. Afrikandugu proposamenaren oinarriak

Lankidetzarako senidetzearen ideia xedea sostengatzen duten oinarri hauen inguruko konpromisoak ahalbidetzen du ekimenak ahalmen eraldatzailea izan dezan:

#### 3.1. Printzipio gidaria

Lankidetzarako senidetze hauen indartze-prozesu honen printzipio gidaria Afrikako indar tradizionalak errespetatzean eta sustatzean datza, afrikarren subiranotasuna eta auto-eraikuntza errespetatzean eta sustatzean, eta bereiziki menpekotasuna eta orekarik gabeko botere-harremanak indar ditzakeen edozein ekintza ekiditean.

#### 3.2. Irizpide nagusia

Irizpide nagusia Europako eta Afrikako errealitateen arteko harreman zuzenak, simetrikoak eta elkarrekikotasunean eta elkar laguntzan oinarritutakoak bilatzean datza. Ematea eta jasotzea, irakastea eta ikastea, horiek lirateke bere gako estrategikoak. Edozein gurasokeria, inposaketa edo Lehen Munduak Afrikarekiko izan dezakeen nagusitasunean oinarritutako edozein aurreiritzi-modu lankidetzarako senidetzearekin bateraezina da.

#### 3.3. Aurre-baldintza

Lankidetzarako senidetzearen proiektio eraldatzaileak behar duen aurre-baldintza Afrikak jasaten dituen bidegabekeria eta zergati estrukturalen kontzientzia globalaz eta Afrikaren lehentasunekin arduraz eta modu koherentean jokatzeko da. Honakoak dira lehentasunak: (1) hezkuntza, (2) osasuna, (3) elikadura eta nekazaritza, (4) estatu eta garapen-ereduak eta (5) eredu ekonomikoak.

#### 3.4. Helburuak

Lankidetzarako senidetzeta dela-eta Afrikandugu proposamenaren helburuak honakoak dira:

- Afrikarekin egiten den egungo lankidetzaren inguruko kudeaketaren hausnarketa kritikoa eta eraikitzailea sustatzea,
- kontinente honekiko elkartasunaren eta bere eraginean eta emaitzen hobekuntzan, partekatzean eta zabalkundean parte hartzea,
- Europako hiritarrek Afrikarekiko duten gizarte-konpromisoa zabalagoa, emaitza hobekoa eta eskuragarriagoa egitea,
- Afrikako eta Europako solaskideen arteko lankidetzeta-harreman indartsuagoa eta simetrikoagoa sustatzea,
- eta Afrikako errealitatearen eraldaketa eragingarriko baldintza sozial eta politiko berriak sortzea.

## 4. Afrikandugu proposamena deskribatzen duten bi ikuspegi

Bi ikuspunturen arabera deskriba daiteke Afrikandugu proposamena: jomuga modura duen ikuspegi utopikotik, eta abian jartzeko ikuspegi zehatzetik. Beste modura esanda, azken pauso idealetik eta lehen pauso praktikotik. Bien artean ezezagunak zaizkigun faktore objektiboek, subjektiboek eta aurrez ikus ezin daitezkeen beste askok osatutako prozesua eta kasuistika dugu. Edozein kasutan, deskribatzeko metodo honek proiektuaren abiapuntua eta desiragarria den jomuga ulertzen laguntzen du.

### 4.1. Afrikandugu proposamenaren ikuspegi utopikoa

Kasu honetan, kontua honakoa da: 15 urteren buruan, adibidez, desiragarria izan daitezkeen eszenario bat irudikatzeke eta simulatzeko ariketa egitea. Denborazko testuinguru honetan garatzen den Afrikandugu proposamenaren garapen idealak 2025an egoera berri bat deskriba lezaketen hainbat egoera desiratzera eramango gintuzke. Honakoak liriateke baldintza desiragarri horiek:

- Afrikan eta Europan milaka eta milaka pertsona, familia eta entitate senidetu izana. Aldekoa zen baina inplikazio-bide argirik ez zuen Europako gizartearen zati esanguratsu batek orduan konpromiso zehatzerako eta aktiborako eremua luke. Ez da kuantitatiboki marjinala edota eraginik gabeko sektorea, ezpada ikusgai, entzungai eta borondate sozial zabalduaren adierazgarria.

- Europako eta Afrikako gizarte zibileko milaka erakundek dihardute senidetzeen bide eta agente sustatzaile eta erraztaile gisa. Beraien lankidetzarako, elkartasunerako edo lekuan lekuko laguntzarako proiektuak sinergia sozial horren bitartez indartzen dira.

- Lankidetzarako senidetzea indarrez dabil, eta Afrikako indarrak eta bere giza kapitala areagotzen laguntzen duten bi norabideko mota guztietako hartu-emanak gertatzen dira. Pertsonak, familiak, eskolak, ospitaleak, komunikabideak, elkarteak, udaletxeak, eta abarrek, denek elkarbanatzen dituzte euren jakintza eta balioak.

- Proiektuak Afrikako eta Europako gizartearen errotutako masa kritikoa sortu du. Masa honek badu indar nahikoa Afrikako kontinentearen egoera komunikabide, politika eta diplomaziaren agendan txertatzeko, maila nazionalen zein nazioartekoan. Senidetutako milaka eta milaka lagunek eta erakundek eragiteko indarra eta ahalmena duen lobby soziala osatu dute.

- Afrikan eta Europan gertatu den hiritarraren indartzeak, maila lokalean eta nazioartekoan, gizartearen oinarrian eta boterearen eliteetan gertatutakoak, afrikarrak zanpatzen dituen zergati estrukturalen eraldaketarako eta kuestionamendurako baldintza berriak sortu ditu.

Gertatu ezinezko utopia? Agian. Baina, bestalde, planteamendu ikaragarri errealista eta pragmatikoa. Afrika da munduan ezarri den ordenu politiko-ekonomikoaren biktima kolektiborik odolustuena eta bidegabekoena. Benetan ameskeria dena botere politiko eta ekonomiko honen barruko eta nazio arteko ordenak, bat-batean edo bere kabuz, Afrikak jasaten duenarekiko sentiberatasun apurra erakustiko duela, eta oinaze hori ekiditeko aldaketa estrukturalak gauzatuko dituela pentsatzea da.

Aldaketa hori posible egiteko bide bakarrenetakoa da Afrikaren status quo-a eusten duten barne- eta atzerri-politikak auzitan jartzeko adinako amorru-, konpromiso- eta gizarte exijentzia-oldea zabaltzea, botere egituren gainean lobby edo presio-talde bilakatuko dena. Zaila da gizarte aktibazio maila hori erdiestea, oso zaila, ziurrenik gertagaitza, baina ez ezinbestez ezinezkoa. Dena dela, erabat ezinezkoa dirudiena honakoa da: Afrika zapaltzen duen nazioarteko ordena eta barne-antolaketa eraldatzea, aurretik horretarako beharrezkoak diren konpromiso-, salaketa- eta aldarrikapen-baldintzak sortzen ez badira.

Afrikandugu proposamena azken finean horretara bideratua dago: Afrikako lehentasunen aurrean, nazioarteko erantzunik ezean, herritarren jabekuntza eta errebelia posible egingo duten baldintzak sortzea, bere burua antolatu eta modu zuzenean eta subiranoan ekin dezan. Hiritarren transgresio eta desobediencia zibil modu bat da. Nazioarteko sistema politikoak eta ekonomikoak ez du ekiten, ez du erantzunik, premiazko lehentasunen aurrean ez du irtenbiderik eskaintzen, eta gizarte tokiko eta nazioarteko sistema politikoari eta ekonomikoari aurreratzen zaio, eta ekiten du. Ordezkatu eta deslegitimatuz egiten du ekintza ez-biolento eta eraikitzaileen bidez.

Jakina oso zaila dena, utopia da; baina errealismoz eta pragmatismoz betetako utopia. Afrikaren alde gizartearen inplikazio masiboa lortzea nekez lor daitekeen utopia da. Baina gizarte inplikaziorik gabe Afrikaren egoera aldatzea errealitatetik kanpo dagoen ameskeria boluntarista da.

Horregatik, senidetzeen bitartez, Afrikandugu proposamenaren estrategiaren lehenbiziko helburua da Afrikaren aldeko borroka ez dadila gutxiengo batena izan, gehiengoaren gizarte-borondate esplizitua baizik. Elkartasun zuzenari eta aktiboari bide eman nahi dio gizartearen, eta senidetzearen bi norabideetan hartu-eman baliagarriak eta eraginkorrak eskaini.

Ezin jakin zein izango den emaitza. 60. hamarkadaren bukaeran norbaiti mikrokreditoen ideia bururatu zitzaionean ezinezkoa zen, 40 urteren buruan, beharrea dauden 100 milioi lagunentzat heldulekua izango zenik jakitea. Aurrez ikusi ezinak ziren, halaber, ekarriko zituen gizarte-onurak edo formula horren okerreko erabilera eta etika kaskarreko instrumentalizazioa.

Geure espektatibaren oinarria ezin daiteke izan nahi dugun hori betetzea, geure nahia posible egin dezaketen baldintzak sortzea baino. Václav Havelek esana da esperantza ez dela dena ondo aterako delako uste osoa, emaitzetan ardura jarri gabe egiten dugunak zentzua duela segurua jakitea baino. Lankidetzarako senidetze masiboa bultzatzeak eta zabaltzeak zentzua du beharrezkoa, premiazkoa eta bidezkoa delako, eta arrazoiari oinarritzen delako. Nahi dugulako, ahal dugulako, eta behar dugulako.

Badakigu zein den geure helburua, geure nahia eta geure esperantza: Afrikan giza duintasunaren alde egitea; baina ezin jakin zein izango den geure proiektuaren emaitza. Horregatik geure espektatibak apala izan behar du: gertagaitza posible egingo duten baldintzak sortu, besterik ez.

### 4.2. Afrikandugu proposamena martxan jartzeko ikuspegi zehatza

Baketik-ek eta Tau Fundazioak Afrikandugu proposamena martxan jartzeko orduan honakoaren antzekoa izango den prozesua jarraitzeko asmoa dute:

- Arantzazuko Afrikari buruzko III. Astearen proposamenaren hausnarketa eta kontrastatze kritikorako topagunea eta bost senidetze posible egitea. Beste hainbesteko gizarte-ekimenetan jarduten diren Afrikako bost ordezkari gonbidatu ditugu. Horiek parekoak diren euskal entitateekin bilduko dira senidetze egonkor bat ezarri ahal izateko posibilitatea aztertzeko.

- Proposamen honen berri emateko Afrikako gizarte zibileko erakundeekin harremanak egiten hasteko, beren ekarpenak jasotzeko eta ekimen hau sustatu ahal izateko elkarrekin komunikazio- eta koordinazio-formulak aztertzeko.

- 2009-10 ikastaroan zehar Afrikandugu proposamena eztabaidagai izango duten jardunaldietara elkartasunarekin eta lankidetzarekin zerikusia duten (bereiziki Afrikan lana egiten dutenak) ahalik eta euskal erakunde gehien gonbidatzea. Jardunaldi horietan, horretarako adostasun zabala lortzen bada, lankidetzarako senidetze proiektuaren indartze koordinatua lortzeko asmoz sare bat sortuko da, Afrikako erakundeekin batera.

- Jardunaldi hauen ondorioen berri ahalik eta modu zabalean ematea: estatu mailako Afrikarekiko elkartasunerako eta lankidetzarako erakundeei, tokiko mailan nahiz nazioartean erreferentzia diren erakundeei eta abar. Eta horiei denei proiektuan parte hartu dezaten gonbidata egitea.

- Prozesu honekin batera, eta esperientzia pilotu gisa, afrikandugu.org web gunea sortuko da, bi helburuekin:

- Prozesu honetan lankidetzarako senidetzeak sustatzen, errazten eta dinamizatzeko prest leudeken Afrikako gizarte zibileko eta Afrikarekiko elkartasuna erakusten duten erakundeen parte har dezaten bideak ireki.

- Lankidetzarako senidetze-harremanak abian jartzeko prest leudeken Europako eta Afrikako lagunen eta erakundeen erregistro bat irekitzea.

- Ekimen honekin bat egiten duten erakundeen adostasuna beharko du web gunearen funtzionamenduak eta antolamenduak. Honako ezaugarriak izan beharko ditu, behintzat:

- Senidetze-kategorien araberrako sailkapena, gaien araberrakoa, profilen araberrakoa eta harremanetan jarri daitezkeen ekintza-eremu desberdinen araberrakoa.

-Senidetzeak bete beharko lituzkeen irizpideekin oinarriak aurkeztu. Bertan bi alderdi hauek arautuko lirateke:

- Senidetzearen gauzatzea: Horretarako «senidetze-aldarrikapena» onartu beharko lukete. Aldarrikapen horrek senidetze-prozesuetan bete beharreko oinarrizko irizpideak izango lituzke. Senidetutako erakundeek irizpide hauek betetzeko konpromisoa hartu beharko lukete, eta beren oinarri filosofikoak eta kontzeptualak errespetatu. Zehazki, oinarri hauek senidetzetik eratortzen diren eskubideen eta betebeharren eta bultzatu beharreko filosofiaren aldarrikapeneko hitzarmen-eredu bat aurkeztuko dute, eta senidetutako erakundeek sinatu.

- Senidetzearen oinarrizko jarraipena eta ebaluazioa: Oinarriek ere senidetutako entitateek senidetzearen ebaluazioa eta jarraipena azaltzen dituen urteko informeak aurkezteko beharra zehaztuko dute.

- Elkartasunaren arloan Afrikan edo hemen lan egiten duten erakundeei eta gizarteari web gunea martxa jarriko dela adierazi, baita senidetze-proiektuaren berri eman ere. Era berean, web gune honek eskaintzen duen senidetze-possibilitatearen berri eman dezaten eskatuko zaie.

- Lankidetzarako senidetze-esperientzietan parte hartu nahi duten Afrikako edo Euskal Herriko pertsona, familia edo entitateen arteko harreman zuzena kudeatu, sustatu eta erraztu web gune honen bitartez.

- Aurreko guztiaren oinarrian, Europan zein Afrikan lankidetzarako senidetze dinamika zabaltzen joan.

Ikuspegi utopikoa abiapuntutik oso urrun dagoela dirudi. Dena dela, edozein utopia lehen pausu batekin jartzen da martxan. Bien arteko distantzia handiegia dirudi. Bi aldeak batzen dituen pazientziarekin, errealismoarekin eta prozesua delako pentsamoldearekin insistitzeko erabaki irmoa eta borondatea dira.

Proposamen honek zentzu estrategikoa izango du, baldin eta olio tanta modura zabaltzen bada. Lehenik GKEen artean, Elizaren erakundeen artean, elkartasunerako erakundeen artean; gero, beste motatako erakundeen artean, enpresa, sidikatu, eskola, elkarte profesional, komunikabide, familia, partikular eta abarren artean... Baketik-en eta Tau Fundazioaren proiektua balitz bakarrik hedapen errespetagarria izango luke, baina oso txikia. Aldiz, partekatutako proiektu modura onartuko balitz, orduan, agian hamar edo hamabost urteren buruan milioika senidetzeri buruz ariko ginateke hizketan.

Zinez, ez dakigu; baina badakigu utopia hau posible egin dezaketen baldintzak sortu ditzakegula. Eta horretarako lehen pausoa eman behar da.

## **5. Ekimen honek sorrarazten dituen hainbat galdera**

Jakin, badakigu dokumentu hau irakurrita arrazoizko galdera asko sortzen direla. Horietako batzuk bildu ditugu, oinarrizkoenak iruditu zaizkigunak, erantzunek Afrikandugu proposamenaren zentzua hobeto ulertzen lagun dezaketelako.

### **5.1. Zer truketuko lukete elkarrekin senidetuek?**

Elkarrekin adosten dutena, besterik gabe. Batek daukan eta besteari ondo etorriko zaion edozer. Trukea bi norabidetakoa izatea da garrantzitsua. Pentsa, esate baterako, bi eskola senidetu direla. Zer ekarri egin lezake Europako eskolak? Seguru asko materiala edo proiektu pedagogikoak. Zein izan liteke Afrikako eskolaren ekarria? Bizitzaren ikasgaia eta eskarmentua, oso gutxirekin hezi eta zoriontsu izan daitekeela ikasteko aukera edo bere kultura, tradizio eta jakinduriaren transmisioa. Imajina orain udal edo tokian tokiko erakundeen kasua. Europako aldeak dirua, lanabesak edo bizi-kalitatea nahiz produkzio-esparru jakin bat hobetzeko teknikak eskaini ditzake. Afrikako aldeak, egonaldi bat eskaini diezaieke Europako gazteei, herri horretako bizimodu eta kultura ezagutu ahal izateko. Zenbat ikasiko lukete gazte horiek bizitzari buruz? Diruz ordain daiteke ikasgai hori edo unibertsitatean ikas daiteke?

### **5.2. Ez al dago arriskurik bi aldeetako batek senidetzearekin iruzur egitekoa?**

Bai, arrisku hori bada, beste edozein proiektutan bezala. Ez da txantxetan hartzeko kontua,

zenbait GKEren iruzur kasuak ezagututa eta jakinda gizarteak eta hedabideek zer sentsibilitate erakutsi duten kasu horiekiko. Seguru asko saihestezina da, gizakiok garen bezalakoak garelako. Nolanahi ere Europako elkartasan-erakunde eta Afrikako gizarte zibileko taldeen eginkizunetako bat izango da horrelakorik gerta ez dadin neurriak hartzea eta elkarkidetzarako senidetzeak eskatzen dituen baldintzak eta konpromisoak beteko direla bermatzea. Errekurtso-trukea balego, elkarrekin berriak proposatu beharko lituzkete elkarri kontuak emateko eta justifikatzeko bideak. Era berean, garrantzitsua da senidetzea sinatu arteko bide zehatza ondo ezarriko dela bermatzea, eta Afrikandugu-tik bultzatuko diren senidetzeen jarraipena eta gainbegiratzea ahalbidetuko duten neurriak zehaztea. Gainera, jardunak erakutsiko du proiektuaren gabeziak zeintzuk diren, eta zer zuzenketa-neurri behar diren.

### **5.3. Senidetze asko ez al dira Europak emandako diru-laguntza soilean geratuko?**

Litekeena da askotan Europako senidetuaren ekarria diru-laguntza batean konkretatzea, baina senidetzea ez da horretara mugatzen, bi norabidetakoa izateko ezaugarria errespetatu behar duelako. Elkartrukatzerik ez badago, egoera asimetrikoa eta nagusitasunekoa ezartzen ariko dira, eta hori senidetzearen oinarriko izaeraren kontrako da. Beraz, senidetze askotan Europako aldeak diruz laguntzea ez da arazo, bi aldeen truke-erabakiaren parte bada, eta dirulaguntza hori Afrikako indarguneak eta giza balia bideak sendotzeko erabiltzen bada. Europako familia, eskola edo talde batek erabaki dezake senidetu den taldearekin batera, bere ekarria dirutan egitea, diru hori autonomiara bideratzen bada eta ez dependentziara, eta Europako aldea ulertzeko gai bada Afrikako aldeak ere badauela zer eskainia.

### **5.4. Ezer ez daukatenek zer ekarri egin dezakete lankidetzarako senidetze batean?**

Galdera honen oinarrian aberastasunari edo pobrezia buruzko aurreiritzia dago. Modu global eta orokor batean, europarrok aberatsak gara gauza materialetan eta afrikarrak behartsuak. Horraino datu objektiboa da. Arazoa da Lehen Munduan giza aberastasuna zer den ulertzeko modu zabalduenak gauza materialetara mugatzen duela aberastasun hori. Hala dihoakigu, eta hala kutsatzen dugu Afrika geure ikuskeraz.

Afrika ordea, Europa bezain aberatsa edo aberatsagoa da elkarbizitza eta giza baloreetan zein espiritualetan. Orobat, geuk baino hobeto dakite egoera injustuetan eta aldrebesetan eusten eta bizirauten. Europako batek ekinaldi bakar bat jasango ez lukeen egoeretan. Geuk ez bezalako baliabideak eta sormena dituzte. Geure handiusteak, ordea, itsu egiten gaitu gure pobrezia eta haien aberastasunaz jabetzeko. Ezer materialik ez daukanak asko eman eta irakats diezaguke bizitzaren zentzuari buruzko funtsezkoenari buruz: giza duintasunaren zentzu sakonena, apaltasuna, berdintasuna zer diren jabetzea; errespetua, enpatia, elkartasuna, besterekin bat egitea, geurea baino aitzinagokoak diren kulturen eta tradizioen jakinduria, bizi-poza, oren gainetik... materialki ezer ez duenak asko eskaini eta irakats diezaguke. Horretaz jabetzeko, ordea, ezinbestekoa da entzuten jakitea.

### **5.5. Nola bideratu komunikazioa eta senidetzea Afrikako eremu askotan dagoen teknologia-gabezia kontuan izanda?**

Hau eragozpen objektiboa da. Erantzuna da, sormena eta irudimena erabilia gainditu behar dela zailtasun hau eta tokian bertan dauden Europako eta Afrikako elkarrekin laguntzarekin. Komunikazioko arazo bakoitzaren aurrean alternatiba topatu beharko da. Borondatea izanez gero, irtenbideak aurkituko dira. Bestalde, gabezia horrek berak seinatzen du nora bidera daitezkeen lankidetzarako senidetzeak gabezia teknologikoa lehentasun denean pairatzen dutenentzat.

### **5.6. Nola lor dezake ekimen honek nazioarteko edo herrialde barruko ordena politikoan eta ekonomikoan eragina izatea elkartasun partikularren eremutik at?**

Hori lortzeko bide bakarra, bategite zabala lortzea da, elkartasun-taldeetan lehendabizi, eta gizartearen ondoren. Hori lortuz gero, sare honek autoritatea eta eragiteko eta mobilizatzeko gaitasuna izango ditu. Oinarri horien gainean, ahaleginak bildu izango ditu errealitatea eraldatzeko moduko norabide bateratuan. Lehenbiziko helburua indarra izatea da. Afrikandugu proposamena horretarako bide bat besterik ez da; ondoren, indar horren bidez gizarte mobilizatzeko eta elkar-hartuta arazoaren arrazoi estrukturaleri heltzeko. Gaur, mundu osoko gizarte zibileko elkarrekin badute gaitasuna elkarrekin eta aldi berean gerrari erantzuteko. Akaso, oraindik ez dute nahikoa indar gerra behin be-

tirako geratzeko, baina beren eraginari esker gerra egitea gero eta konplikatua da nazioarteko ordena politikoan. Hori da gakoa, eragina eta indarra izateko moduko baldintzak sortzea Afrikari buruzko erabakiak aldatzeko.

### **5.7. Nola lortuko dute Afrikarekiko elkartasun taldeek orain arte gainditu ez dituzten inplikazio eta gizarte babes mailatik harantzago joatea?**

Hori lortzeko modua, ekimen komun bat eta proiektu estrategiko bat konpartitzea da. Era horretara, gizarte taldeek euren proiektu propioak garatuz gain, gutxienez proiektu bat ere konpartituko dute. Programa konpartitu hori beren ekimen plan orokorraren parte bihurtuko da eta gizarteari elkarrekin eskaini eta komunikatuko diote. Ahaleginak biltzeak gizartearekiko komunikazioa argitu eta errazten du eta inplikazio zuzenerako bide argi bat eskaintzen. Berrikuntza horrek sarea eta sinergia sortuko ditu eta emaitza hobeak. Zenbat eta gizarte zibileko elkarte gehiagok babestu orduan eta inplikazio sozial handiagoa lortuko du. Norberak bere aldetik lan eginda hobekuntza puntual asko lortzen dira baina aldaketa estruktural gutxi. Elkarrekin ekinda, akaso emaitza orokorrak hobetu daitezke.

## I. eranskina. Nagusiki europarrentzat.

# Elkartasuna, nondik?

### Sarrera

Afrikandugu proposamena oinarri batean eraikitzen da: elkartasuna. Elkartasun-konpromisoa, beraz, ezinbesteko aurrebaldintza da. Halako garrantzia izanik, zilegi da dokumentu honi gai honi buruzko hausnarketa gehitzea. Zer da elkartasuna, eta zergatik eta nola egiten dugu bat berarekin? Dena dirudien bezain gardena al da? Hausnarketa hau nagusiki Europako pentsamoldeari zuzendua dago. Beste zerbaiten artean, elkartasunaren bekaturik zentzugabekoenetakoa eta berau gehien desitxuratzten duten akatsetako bat elkartasunez ekiteagatik Lehen Munduak bere burua ontzat edo hobetzat hartzearen handikeria da.

Elkartasuna maila pertsonaleko edo taldeko konpromisoa da, behar duenari babesa, laguntza eta sorospena ematera bideratua. Norberekeriaren eta indibidualismoaren militante fanatikoren bat salbu, ia inork ez du auzitan jartzen besteenganako elkartasuna eta konpromisoa berez ona, positiboa eta laudagarria denik Sozialki onartua eta aitortua dagoen balioa da. Honek ez du esan nahi, ordea, masiboki praktikan jartzen denik. Edozein kasutan, elkartasunak balorazio eta aintzatespen ikaragarria lortzen du gizarte mailan.

Hau ondo dago, baina gauza guztietan bezala, hemen ere txanponaren bi aldeak aurki ditza-kegu, alde onak eta alde txarrak. Elkartasunerako aukera gutxiengoak egin dezake, baina ondo ikusia dago. Ez da eztabaidatzen, eta, beraz, aldeko giro soziokulturalean egiten du aurrera. Hau ona da. Dena dela, auzitan jartzen ez denez ez da aztertzen, eta hau txarra da. Oinarrizkoena solidarioak izatea dela dirudi, eta hala bagara, kito, helburua betea; baina hau bezain garrantzizkoa da, eta agian garrantzizkoagoa ere, elkartasuna nondik abiatzen den inguruan pentsatzea, eta honi gutxitan jartzen zaio arreta.

### 1. Galdera bat

Hausnarketa honen atzean dagoen galdera geure elkartasunaren motibazio sakonarena da. Nondik gara solidario? Doakotasunetik eta baldintzagabetasunetik edo norberaren interesetik eta utilitarismotik. Konpromisoa interes propioa ala doakotasuna den jakiteko erreferentziarik argiena ez da egiten dugun ahalegina eta erakusten dugun eskuzabaltasuna aztertzea edo neurtzea. Neurria konpromisoa geure bizitzaren oinarri ala irizpide den aztertzea da.

Konpromisoa geure bizitzaren oinarri bada, geure autoestimu-galera konpensatzen badu, zerua irabazaraziko digula sentitzen badugu, geure existentziari zentzua ematen badio, onak edo justifikatuak sentiarazten bagaitu, orduan elkartasuna oinarri lez bizi dugu eta berraztertu egin behar da. Kasu ho-

netan konpromisoak geure beharrak asetzeko balio du, gizaki gisa eta bizitzan dugun oinarri gabezia ordeztzen du, eta ia gehienetan aukera utilitario eta interesatu bilakatzen da, inkonszienteki bada ere. Horrela, elkartasuna geure hutsune existentzialen ezkutaleku bilakatzen dugu.

Konpromisoa ez da norberaren bizitza oinarritzen duen zutabea. Maitasunaren eta giza duintasunaren zentzuaren ondorioa eta irizpidea da. Ezertarako balio ez digula sentitzea dakar, solidarioak izanagatik ez dugula zerua irabaziko ulertzea esan nahi du, mugatuak izaten jarraitzen baitugu; eta doakotasuna, baldintzagabetasuna eta askatasuna hurkoarekiko obedientzia-zentzuan esperimintatzea ere esan nahi du. Adibidez, seme-alabak elikatzea edo janzteia emantzat hartzen den eguneroko irizpide doakoa eta baldintzarik gabekoa da. Ekintza honek ez gaitu hobeak egiten, eta bizitzan ere ez gaitu justifikatzen. Hori da egin behar duguna, besterik gabe. Horrelako zerbait gertatzen da elkartasunarekin.

Azken finean, konpromisoa modu sanoan eta betean garatzen da doakotasunetik abiatzen denean, geure bizi-jardueran emantzat hartu behar den irizpide bezala, eta ez geure bizitza justifikatzen, kompensatzen edo betetzen duen oinarri bezala. Adibidearekin jarraituz, oinarria seme-alabekiko baldintzarik gabeko doako maitasuna da; irizpidea, modu egokian hezteia.

## 2. Galdera honen erantzunaren ondorioak

Bi norabidetan bada ere, elkartasuna oinarri edo irizpide gisa bereizteak eragin praktikoa handia du. Barrurantz, geure eraikuntza eta heldutasun pertsonalean; eta kanporantz, besteekin elkartasun-konpromiso hau gauzatzeko, zabaltzeko eta aplikatzeko. Arriskuak dituen eremu batean mugitzen ari gara.

•**Barrurantz**, gizakiaren garapenarentzat elkartasunezko konpromisoak mugarik gabeko ahalmena du. Esan genezake bizitza ez dela betea altruismoaren eta doakotasunaren esperientziarik gabe, baina ahalmen honen garapena gutako bakoitzak konpromiso horrekin duen harremanaren araberakoa izango da. Instrumentala edo utilitarioa bada, balio gutxi eta ibilbide laburra izango du. Bere horretan agortuko da. Momentuan momentu geure huts eta pobrezia existentziala elikatzen eta kontsumitzen duen norberaren asetze-esperientzia baino ez da izango.

Alderantziz, neurri handi batean doakotasunean oinarritzen bada, bere ahala ikaragarria da. Geure errealitatean, garen horretan kokatzen gaituen lantze pertsonalaren prozesu baten beharra du. Horrela elkartasuna ez da geure izaera mugatua ezkutatzen duen buruaskitasunaren aitzakia edo mozorroa. Geure buruak diren bezalakoak ikustea eta ezagutzea gizatasunez eta

espiritualki hazteko ezin besteko aurrebaldintza da. Onak, osoak eta nahikoak sentitzeko ez dugu zertan ikasi, hazi edo hobetu. Beste inor edo ezeren beharrik ez dugula bizi gara. Amarru hau ez badugu erabiltzen, ibiltzeko dugun bidea jakingo dugu, eta ibilbidea egin ahal izango dugu.

•**Kanporantz**, elkartasun-konpromisoaren sorburuaren araberakoa izango da konpromisoa beraren eta bere ondorioen izaera. Elkartasunak onak, hobeak edota justifikatuak sentiarazten bagaitu, ezinbestez bere ondorioak nagusikeriz, nork bere buruaren asetzaz, handikeriz, harrokeriz eta batzutan apalckeriz ere jantziko dira. Hori zabaldu eta igarri egiten da. Utilitarismo horretatik abiatuta oso zaila da berdinen arteko harremanak sustatzea, eta are eta zailagoa solaskideari zintzoki entzutea eta berarekin hitz egitea. Modu honetara, lankidetzaren senidetzea desitxuratzen da, ezin baitugu geure pobrezia ulertu, ezta senidetutakoaren aberastasuna ere.

Elkartasuna eskuzabaltasunetik eta giza duintasunaren zentzurik sakonenarekiko obedientziatik ernetzen denean, guraso izatearen obedientziatik seme-alabak elikatzeko konpromisoa ernetzen denean bezala, pare-parekoa den elkarrekikotasun harreman batera irekitzen ditugu geure buruak, doakotasunez maitatzen ikas dezakegu senidetutako horri entzuten eta berarekin hitz egiten. Eta hau egiten dugunaren apaltasunean eta bere ondorioetan zabaltzen eta nabaritzen da.

Azken finean, elkartasun-konpromisoak bere ahalmen guztia eskaini dezan irizpide gidatzaile lez baneratu beharko litzateke, eta ez bizitza justifikatzen duen oinarri modura. Irizpide gidatzaile modura bizitzeak eta ez oinarri modura, agian, egiten dugun horren eduki zehatza aldatuko ez duen nabardura baino ez da. Agian, gauza bera egiten jarraituko dugu, baina beste kokaleku batetik eta beste abiapuntu batetik. Ez du egiten duguna aldatzen, birkokatzen baizik. Horrela ulertutako elkartasuna norberarekin eta besteekin hobeto bizitzeko eskola egokia izan daiteke.

### 3. Elkartasunak lantze pertsonaleko prozesua behar du

Baina gehienok elkartasuna interesik gabeko irizpide baino justifikatzen gaituen oinarri lez bizi dugu. Ez hori bakarrik, geure izaera mugatua hor egonik eta ezaguturik, ziurrenik ez da inor egongo elkartasuna doakotasun garbirik eta absolututik biziko duenik. Garen bezalakoak gara. Geure errealitatean onartu behar ditugu geure buruak, eta hortik aurrera geure baitan maila pertsonalean eta elkarlanean elkartasun-konpromisoarekiko gure atxikimendu eta harremana lantzen saiatu.

Hau guztia ez da soilik momentu batetik bestera onartu eta abian jartzea erabakitzen dugun mekanismo mental automatikoa. Bulkada baten eraldaketa-prozesu bati erantzuten dio. Horrela geure konpromisoa pixkana desinteresatuagoa eta doakoagoa izango da, apalagoak eta errealistagoak izanik. Prozesu honen lantzea barruan gertatzen den prozesua da, geure kontzientziaren mailarik sakonarekin solasean.

Baketik-ek horrelako prozesuetan zeresanik izan dezaketen norberarekin eta besteekin hobeto bizitzeko oinarritzeko lau ikaskuntzen proposamen batekin egiten du lan. Lau ikaskuntza hauek modu zaballean landu dira honako liburuan: *Vivir y convivir, cuatro aprendizajes básicos* (2008. Alianza Argitaletxea). Jarraian bere edukiaren laburpena aurkezten da.

### 4. Oinarritzeko lau ikaskuntza

Elkartasuna bizitzaren oinarritzeko ikaskuntza da. Geure bizitzaren testuinguruak horri laguntzen badio, zorte hori badugu, elkartasuna giza izaeraren hoberenari lotua dagoen bide eta helmuga dela ikasiko dugu. Solidarioak izan behar garela ulertuko dugu. Non eusten da hau? Ikusi dugu nola elkartasunak baduen geure miserietan kutsatutako lur anbiguoan sustraitzeko arriskua. Beharrezkoa da elkartasunaren azpiko lurra aurkitzea. Ez da nahikoa helburua eta bide egokia dela jakitea. Geure hipotesia honakoa da: horretan lagun diezagukeen lau ikaskuntzen kontzientzian aurrera egiteak. Gizakion izaera mugatuaren, esker onaren, kontzientziaren eta giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntzak dira.

#### •Gizakion izaera mugatuaren ikaskuntza

Gizaki guztiok gara iragankorrak, mugatuak, ez-perfektuak; ez dakigu dena, ezin dezakegu dena. Geure ez-perfektioaz ohartzen ez bagara, errealitatekanpora geratuko gara. Izan ere, geure ez-perfektioaz ohartzeak laguntzen digu «besteena» ere ulertzen. Gure errealitatea dugu abiapuntu giza elkartasunaren edo duintasunaren sakoneko esanahira iristeko. Geure mugak umiltasunez

onartzen ez baditugu, harrokeriaren edo hantustearen adierazle dira enpatia, maitasuna edo eskuzabaltasuna. Geure mugak umiltasunez onartzea ezinbesteko baldintza dute enpatiak eta elkartasunak. Gure pobrezia ulertzen laguntzen digu, nahiz eta materialki aberatsa den mundu batean bizi garen.

#### •**Esker onaren ikaskuntza**

Zorionez, mundua ez da mugatua izatera murrizten. Ikaskuntza honen xedea da inguruan ditugun eta geure esker on sakona eta kontzientea merezi duten egoerez ohartzen ikastea, bizitzari egiten zaion opari ikaragarria dira-eta. Esker onekoa izatea da aitortzea geuregan eta geure inguruan daudenen alderdi onak. Eginkizun osatzaile izugarria du, daukagun eta garen horrekin zoriontsu izaten irakasten baitigu. Geure maitatzeko gaitasunaren oinarritzko adierazpena da, «besteari» eta «bestelakoari» irekitzen baitio geure bihotza. Ezin diogu ekin giza duintasuna ulertzeari ez bagara inguruan ditugun horretan eta horiengan giza duintasunaren eta horren sorkuntzaren alderik onenak aurkitzen saiatzen. Esker onaren ikaskuntzak besteen aberastasuna ulertzen laguntzen digu, nahiz eta materialki pobre den mundu batean bizi.

#### •**Kontzientziari entzuten ikastea**

Inork ezin du finkatu geure orde zer den etikoa gutako bakoitzarentzat. Geure askatasunaren parte dugu hori. Baina ez dugu nahasi behar askatasuna zigorgabetasunarekin edo hutsezintasunarekin; erantzukizuna da askatasuna. Badugu erreferentzia objektibo eta subjektibo nahikorik bereizteko zer den etikoa eta zer ez. Azken bereizketa, ordea, geure kontzientziarekin hitz eginez egiten dugu. Arazoa da sarritan kontzientziaren azalera bakarrik iristen garela. Horregatik, funtsezkoa da kontzientziaren alderik sakonenak entzuten ikastea. Etikoa zer den zehaztean, ezerk ezin du kontzientziak entzutearen lekua hartu. Kontzientzia sakonari entzutea geure elkartasunaren benetako motibazioa atzemateko ahalmena da, gero utilitarismotik doakotasunera landu ahal izateko.

#### •**Giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntza**

Giza duintasuna da gizakiok elkar berezko helburu gisara, eta ez tresna soil modura, ikusarazten gaituen funtsa, denok geuregan daramaguna. Helburu garen aldetik, besteen begirunea merezi dugu, eta eskubide berberen jabe gara. Gizaki guztiok, salbuespenik gabe, giza duintasun bera dugu. Besteei geure ateak zabaltzea dakar giza duintasunaren ikaskuntzak, geure zati bat ikustea bestearengan. Giza duintasuna da partekatzen dugun alderdi hori. Besteak geu bezalaxe sufrizten, gozaten, amesten, maitatzen... duela ohartzen ikasi behar dugu, beraz. Gizakiaren aldiririk onena ikusteko aukera ematen digu giza duintasunak, haren izaera transzendentera hurbilarazten gaitu, geure nortasunaren sakoneko esanahia ulerrarazten digu, eta besteena errespetatzen irakasten. Giza duintasunaren esanahi sakonaren kontzientziak zera erakusten digu: geure elkartasuna bideratzen diogun hori ez dela geu hobeto sentiarazteko bitartekaria, bere baitan helburua baizik. Elkartasuna gizakiaren berezkoena den ezinbesteko atala dela erakusten digu, identitate unibertsalaren atala.

## 5. Zergatik hauek eta ez beste ikaskuntza batzuk?

Galdera honi erantzuteko ez dira nahikoak argudio arrazionalak, esperientzia pertsonalaren birtutez eginiko egiaztapenak osatu behar du ikuspegi hau. Honekin ez dugu esan nahi maila bereko beste ikaskuntzarik ez dagoenik, jakina, edota hauek berak beste modu batean hobeto adierazi ezin zitezkeenik. Geure ustea aurkeztu baino ez dugu egiten. Edozein kasutan lau ikaskuntza hauek oinarritzkoak dira eta beraien funtzioa betetzen dutela konbentzituak gaude, honako arrazoiengatik:

•**Argitu egiten dute.** Lau ikaskuntza hauek edozein pertsonak bere baitan ezagutu ditzakeen bizipenak dira. Ez dira lezioak, jada geure barruan dauden errealitateak dira. Lau ikaskuntza hauen bidez ez dugu ezer irakasten, ez dugu ezer asmatzen ere, geuregan emana dagoena argitu egiten dugu. Pertsona bakoitzak bere baitan egiazta dezake bere mugek, esker onaren, kontzientziaren edo giza duintasunaren esperientzia. Ez da beharrezkoa irakatsi diezazkiguten, izatekotan esperientzia horren kontzientzia handiago izaten lagun diezaguten bakarrik.

•**Gainontzekoa oinarritzen dute.** Ikaskuntza hauek oinarritzkoak dira pinturan oinarritzko koloreek betetzen duten funtzio bera bete dezaketelako: gainontzeko ikaskuntzen oinarri dira. Besteak ins-

## Afrikandugu proposamena

trumentalak (bitartekariak, metodoak, jarrerak...) edo finalistak (helburuak, helmugak, xedeak...) dira, baina hauetatik eratortzen dira. Nola ulertu elkarrizketa, elkartasuna, bakea, enpatia, errespetua, giza berradiskidetzea... hauek ez badira neure mugen esperientzia propioan, gainditzen nauden horretan, neure kontzientzian edota giza duintasunaren gainean oinarritzen?

•**Elkarbanagarriak.** Oinarrizkoak dira denak elkarbanatu baititzakegu. Ez dira bakoitzaren identitatearekin bateraezinak. Hizkuntza erlijiosoaren, kulturaren edo ideologikoaren aurretik dagoen hizkuntza komuna islatzen dute. Lau ikaskuntza hauetan berdin egiten gaituena eta gizakiari berezkoena zaión hori aurkitzen dugu: geure mugak, geure zorion-ahalmena, geure diszernimendu etikoaren ahalmena, eta gizaki lez dugun baliorik oinarrizkoena.

•**Iraunkorrak.** Ez dira momentu bakar batean ikasten, ez dira agortzen. Behin eta berriro itzuli behar gara horietara. Beraien irakaskuntza esperientziarekin batera garatzen da. Bizipen bakoitzak beraiengana itzultzea ahalbidetzen du, norberarekin eta besteekin hobeto bizitzeko edo eta giza elkartasunaren zentzua hobeto ulertzeko eta onartzeko ikuspegi, horizonte eta bide berriak eskainiz.

## II. eranskina

# Arantzazun antolatutako Afrikako III. Astearen ondorioak

Baketik-ek eta Tau Fundazioak antolatua, 2009ko ekainaren 8tik 13ra Afrikako hirugarren Astea egin da Arantzazun. Aurten, asteak helburu bikoitza izan du: (a) Afrikarekiko elkartasunaren kontraesanen eta alternatiben inguruan eztabaidatzea; eta (b) Afrik**andugu** proposamena aztertzea lan-hipotesi gisa bi kontinenteen arteko elkartasuna hobetzeko eta berritzeko.

Sei egun luze izan dira eta Euskal Herriko, Hegoafrikako, Swazilandiako, Ruandako, Ugandako, Burundiko, Beningo, Burkina Fasoko, Kongoko Errepublika Demokratikoko, Gambiako eta Keniako gizarte zibileko ordezkariak hartu dute parte lan-saio sakonetan. (a) Ondorio orokorren, (b) gomendio zehatzen eta (c) eman beharreko urratsen inguruko erabakien laburpena hauxe da:

### A. Ondorio orokorrak

**1. Berretsitako lan-hipotesia.** Afrik**andugu** proposamena lan-hipotesi ona da Europako eta Afrikako gizarte zibileko erakundeen arteko elkartasuna eta lankidetzaren berritzeko eta hobetzeko.

**2. Hipotesi honen oztopo nagusia.** Aste honetan zehar frogatu ahal izan dugu proposamen honek aurrez aurre izango duen oztopo nagusia inertzien pisua dela. Europan zein Afrikan inertzia hauek aurreiritzietan (laguntzazkoak, asimetrikoak, menpekoak edo nagusitasun-menpekotasunezkoak) oinarritutako eskemak errepikatuzera bultzatzen gaituzte, iraganean hain ondorio negatiboak sortu dituztenak.

**3. Oztopo hau gainditzeko irizpide gidaria.** Baketik-ek eta Tau Fundazioak proposamen horren lehen dinamizatzaile gisa ahalegin berezia jarri beharko dute geure pentsamoldean eta orain arteko jardunean hain errotuak dauden inertzia, aurreiritzi eta erresistentzia horiek indargabetzen dituzten oinarriak sendotzeko, argitzeko, eta horiei lehentasuna eta indarra emateko eta indartzeko. Laburbilduz, astean zehar azpimarratu da proiektua zabaltea bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa dela bere jatorrizko filosofia errespetatzea. Oinarritzko filosofia hori Afrik**andugu** proposamenaren irizpideen atalean jasoa dator, eta ondorengo izenburuak daramatzate irizpideok:

- Afrikako indarguneak bultzatzea.
- Lehentasuna Afrikako giza kapitala indartzean jartzea.
- Lankidetzaren simetria eta elkarrekotasunean oinarritzea.
- Afrikarekin elkarriketa zuzena bilatzea.
- Ekin aurretik, geure Afrikako solaskideei entzutea.
- Afrikako arazo globalaren eta bere lehentasunen jabetza izanik ekitea.
- Bide partekatua bat eskaintzea ahalik eta sektore gehienentzako inplikazioa lortzeko.

## B. Gomendio zehatzak

**4. Proiektuaren izenari garrantzia ematea.** Afrikandugu proposamenak bere izena aldatuko du: «**Ndugu** Proposamena. Afrika-Europa arteko lankidetzarako senidetzeak» izena hartuko du. Izendapen berri honen helburua elkarrekotasunaren ideia hobeto islatzea da. Afrikandugu Europatik ondo ulertzen zen, baina senidetzaren alde bakarra adierazten zuen.

**5. Lankidetzarako senidetzaren faktoreen ordenari garrantzia ematea.** «Lehendabizi senidetu, ondoren elkarlanean aritu». Esaldi honek astean zehar errepikatutako ideia ondo laburbiltzen du. **Ndugu** Proposamenaren garapenak ezagupeneko, entzuteko eta hartu-eman pertsonaleko aurretiko konpromisoa eskatzen du. Baldintza hau ahazten duen lankidetzak elkartasuna iraganeko akatsetan erortzera eraman dezake.

**6. Arriskuen aurrean kontzientzia kritikoari garrantzia ematea.** «Kalte egin daiteke, asmo onenarekin laguntzen ari bagara ere». Paradoxa dirudien arren, egun hauetan geurekin egon diren afrikarrek arrisku hori azpimarratu dute. Lankidetzarako senidetzeak zentzu kritikoak, autokritikoak eta kontzientzia eskatzen du. Ez dezagun ahaztu menpekotasuna eta afrikarrenak ez diren errealitateen eskemak ezartzea bezalako ondorio kaltegarriak dakartzatela laguntzak, paternalismoak eta nagusitasun-aurreiritziak. Akats honetan ez erortzeko, ondorengo puntuetan iradokitzen diren bezalako erreferentzia argiak edukitzea komeni da.

**7. Elkartasunaren kontzeptuzko zehaztasunari garrantzia ematea.** Ez badugu paternalismoaren akatsetan erori nahi, laguntzeko dugun jarrera oinarritzen duten kontzeptuei buruz gogoeta egitea komeni da. Horretarako aurreko mendeko Nedoncelle Frantziako filosofoak maiatasunari buruz eman zuen definizioak lagun diezaguke. Berak dioenaren arabera, maitasuna «besteak, bera den horretan, bultzatzeko borondatea da». Elkartasuna benetako elkartasuna da besteak bere horretan den bezalaxe bultzatzen baldin bada; erabakitze, aukeratzeko eta autonomian hazteko gaitasuna duen subjektu gisa.

**8. Metodologia-betebeharrari garrantzia ematea; euren proiektuan lagundu eta ez geure proiektuarekin.** Elkartasuna asimetriako harreman biziaren aldapan behera eror ez dadin, nahitaez, arrisku hori prebenitzen duen baldintza metodologikoari eutsi behar zaio: alde aurretik Afrikako eragileek eta solaskideek definitutako proiektuetan, ekimenetan, plangintzetan edo ekintzetan laguntzea. Beste modu batera esanda, Afrikako anai-arreba egin behar duenaren diseinuan eta erabakietan ordezkatzen ez saiatzea. Euren proiektuari laguntzen zaio, baina ez geure proiektuarekin.

**9. Elkarrekotasunaren begiradari garrantzia ematea.** Lankidetzarako senidetzeak alde bikoak izan behar du, ematea eta jasotzea. Baina, Afrikako anai-arrebak zer eskaintzen duen, zehatz definitzen ez badakigu, ideia hau erretorikaz betetako baliabidea besterik ez da. Elkarrekotasunaren begiradak Afrikaren ekarriaz jabetu behar du. Afrika aberatsa da bizitzaren zentzu sakonenean bultzatzen duten balioak eusteko, kultura- eta espirituak balio sakonetan. Iparra aberatsa da materia-balioetan. Aberastasun horrek bizitzaren zentzua materia-ondareak pilatzean oinarritzera eraman dute. Piskana indibidualismoaren bertsio materialenen, egozentrikoen, kontsumistenen eta auto-asetzailen itxaropen faltsuaren burbuilean ixten dute. Europak ondare materialak eskaini ditzake, baina hain beharrezkoak zaizkion ondare ez materialak jasotzeko beharra

dauka. Gaur egungo bizimoduan, talentua, ezagupena eta jakituria bezain ongi garrantzitsuagorik ez dago. Afrikak giza talentua, espirituaren ezagutza eta bizitzaren jakituria eskaintzen du Afrikak. Truke hori ulertzeko, nahitaezkoa da geure mugetaz jabetzea, Iparraren pobreziaz jabetzea; eta belarriak eta begiak zabaltzea Hegoaldeko lagun hurkoaren aberastasuna ulertzeko.

### **C. Hurrengo urratsen inguruko erabakiak**

Aldez aurretik esandako guztia oinarri hartuta, Baketik-ek eta Tau Fundazioak prozesu bat hasi dute **Ndugu** Proposamena Afrikako eta Europako gizarte zibileko beste erakunde batzuekin piskana —urratsez urrats eta presarik gabe— partekatzeko. Ideia hau azpimarratu nahi dugu: ez da ahaztu behar proposamena zabaltzea bezain garrantzitsua dela definitzen duten eta indargabetuko luketen inertzietatik defendatuko duten irizpideak sendotzea. Horrela, Afrikako hirugarren Astea amaitzetik eta laugarrena hasi bitartean martxan jarriko diren ekimenak ondorengo hauek dira:

**10. Web gunea.** Afrikako eta Europako gizarte zibileko erakundeen artean lankidetzarako senidetzerako harremanen eremu esperimentalak izango den web gunea prestatu. Horrek hasierako esperientzia horri jarraikotasuna ematea, eta urte batean izandako eboluzioa ebaluatzea ahalbidetuko du.

**11. Erakunde boluntarioen izen-ematea.** Lankidetzarako senidetzeen esperientzietan parte hartzeko prest dauden mota guztietako erakundeen artean izena emateko prozesua zabaldu. Prozesu horrek Afrika-Europa arteko elkarrekiko harremanak bultzatzeaz gain, Afrika eta Europa barnekoak ere bai, eta Europan bizi diren afrikarren ikuspegia txertatzen saiatuko da.

**12. Sorrera-akordioa.** **Ndugu** Proposamena eta bere web gunea kudeatzeko sorrera-akordioa gauzatzea helburu duten Jardunaldiak antolatu. Euskal Herriko eta Afrikako elkartasunezko eta lankidetzarako erakundeak bertan parte hartzera gonbidatuko ditugu.

2009ko ekainaren 13a